



2021

# ORIENTABIDERAKO

laguntza **gida**

LANBIDE  
HEZIKETA

Hezkuntza- eta bokazio-orientaziorako  
baliabideak eta edukiak



2021

# ORIENTABIDERAKO

laguntza **gida**

LANBIDE  
HEZIKETA

- 1.** Zein baldintza bete behar ditut Lanbide Heziketako modalitate bakoitzean sartu ahal izateko?
- 2.** Zein da onarpen-prozesua?
- 3.** Sarbide-baldintzak betetzen ez baditut, sar naiteke Lanbide Heziketako ziklo batean beste bide batetik?
- 4.** Noiz matrikula naiteke Lanbide Heziketako ziklo batean?
- 5.** Egin daiteke Lanbide Heziketako ziklo bat urrutitik?
- 6.** Zein dira Lanbide Heziketan egin ditzakedan zikloak?
- 7.** Zein dira ibilbideak?
- 8.** Lanbide Heziketako ikasle guztiak dute harremana enpresarekin?
- 9.** Praktikak egin daitezke atzerrian?

## Zein baldintza bete behar ditut lanbide heziketako modalitate bakoitzean sartu ahal izateko?

1.

## Oinarrizko LH

- Sarbidea egiten den urte naturalean 15 eta 17 urte bitartean izatea.
- DBHko 3. maila amaituta izatea, eta, salbuespen gisa, 2. maila.
- Irakasle-taldeak zu proposatzea oinarrizko Lanbide Heziketan sartzeko.

## Erdi-mailako zikloa

### 1. Gutxienez titulu hauetako bat izatea:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.
- Oinarrizko lanbide-titulua.
- Batxilergoko titulua.
- Unibertsitateko titulua.
- Lanbide Heziketako Teknikari edo Goi Teknikari titulua.

### 2. Gaingitu izana:

- Hasierako Lanbide Kualifikazioaren Programa baten derrigorrezko moduluak.
- Hezkuntza Administrazioak baimendutako ikastetxe publiko eta pribatuetan Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak egin ahal izateko berariazko

prestakuntza-ikastaro bat, eta ikasturtea amaitzen den urtean 17 urte beteta izatea.

- Erdi- edo Goi-Mailako Heziketa-Zikloetara sartzeko proba edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba.
- Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko lehen bi mailen multzoan gehienez ere bi ikasgai gaingitu gabe.
- Ertainen erreformako lehen ziklo esperimentaleko bigarren maila.
- Unibertsitate-orientazioko edo unibertsitate aurreko kurtsoa.
- Arte Aplikatuen eta Lanbide Artistikoen irakaskuntzetatik 1963ko planeko hirugarren maila edo komunen bigarren maila esperimentala.

## Goi-mailako zikloa

1. Gutxienez titulu hauetako bat izatea:
  - Batxilergoko titulua.
  - Unibertsitateko titulua.
  - Lanbide Heziketako Teknikari edo Goi Teknikari edo Teknikari Espezialista titulua.
  - Batxilergo Bateratu Balioanizduneko (BBB) titulua.
2. Gainditu izana:
  - Batxilergo Esperimentaleko edozein modalitateko bigarren maila.
  - Goi- Mailako Heziketa- Zikloetara sartzeko proba.
  - Hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba.
  - UZI edo PREU.

## Lanbide Heziketa Dualeko zikloa

1. Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasle guztiek parte hartu ahalko dute, baldin eta lehen mailako modulu guztiak (irakasgaiak) gainditzen badituzte.
2. Lan-kontratuaren bidez egiten bada, gehienez ere 24 urte izan behar dira.
3. Beka bidez egiten bada, ez dago adin-mugarik.

## Lanbide Heziketa Dualeko zenbat modalitate daude?

### 1.

#### 2 urteko modalitatea

2 urteko planen helburua da ikasleek zikloan barneratzen dituzten **gaitasunak indartzea**; **2.400 eta 2.800 ordu** arteko iraupena dute osotara.

1. Ikastaroa	2. Ikastaroa
Ikastetxea bakarrik	Ikastetxea
	Enpresa

### 2.

#### 3 urteko modalitatea

3 urteko planen helburua da ekoizpen-prozesu konplexuak direla-eta enpresek dituzten beharrei behar bezalako erantzuna emango dien **espezializazio** bat eskuratzea; **3.400 eta 4.700 ordu** arteko iraupena dute osotara.

1. Ikastaroa	2. Ikastaroa	3. Ikastaroa
Ikastetxea bakarrik	Ikastetxea	Ikastetxea
	Enpresa	Enpresa

[www.fpeuskadidual.eus](http://www.fpeuskadidual.eus)

## Zein da onarpen-prozesua?

# 2.

### Oinarrizko LH

Plaza-kopuruaren % 5 ezintasuna duten pertsonentzat erreserbatzen da eta beste % 5 goi-mailako edo errendimendu handiko kirolarientzat.

Gainerakoak, kupo hauen arabera esleitzen dira:

**1.-** EAEn eskolatutako ikasleak edo DBH-ko azken eskolatutako ikasturtea EAEn egin izana eta:

**1.1.-** DBHko 3. edo 4. mailara arte ikasketak egin eta inskripzioaren urte naturalean 17 urte dituztenak.

**1.2.-** DBHko 3. edo 4. mailara arte ikasketak egin eta inskripzioaren urte naturalean 16 urte dituztenak.

**1.3.-** DBHko 3. mailara arte ikasketak egin eta inskripzioaren urte naturalean 15 urte dituztenak.

**1.4.-** DBHko 2. mailara arte ikasketak egin eta inskripzioaren urte naturalean 16 urte dituztenak.

**1.5.-** DBHko 2. mailara arte ikasketak egin eta inskripzioaren urte naturalean 15 urte dituztenak.

## Erdi-mailako zikloa

Plaza-kopuruaren % 5 ezintasuna duten pertsonentzat erreserbatzen da eta beste % 5 goi-mailako edo errendimendu handiko kirolarientzat.

Gainerakoak, kupo hauen arabera esleitzen dira:

### a)

%65 DBHko titulua dutenentzat, lehenagoko bi ikasturteetan amaitu dutenentzako lehentasuna.

### b)

Plazen % 20 Oinarrizko Lanbide Heziketako titulua dutenentzat, kidetasun-ordenaren arabera.

Ikusi tabla: [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/formac\\_profesional/es\\_1959/adjuntos/TABLAllafinidades\\_c.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/formac_profesional/es_1959/adjuntos/TABLAllafinidades_c.pdf)

### c)

Plazen % 15 honako hauentzat:

1. Erdi Mailarako edo Goi Mailarako sarrera-proba bidez sartzen direnentzat.
2. **1147/2011 Errege Dekretuan\*** ezarritakoaren bidez sartzen direnentzat, ikus beheagoan.
3. HLPPko derrigorrezko lanbide-moduluak gaindituta izateagatik sartzen direnentzat.
4. 25 urtetik gorakoentzat Unibertsitatean sartzeko probaren bidez sartzen direnentzat.
5. Beste sarbide batzuk (Erdi-Mailako Heziketa-Zikloetan sartzeko prestakuntza ikastaro berezia gainditu izana).

## \* Titulazioak edo eskakizunak 1147/2011 ED-an ezarritakoak:

- Teknikari Laguntzaile edo Teknikari titulua izatea.
- Goi-mailako Batxilergo-titulua izatea.
- Irakaskuntza ertainen erreformako lehen ziklo esperimentaleko bigarren maila gainditu izana.
- Arte Aplikatuen eta Lanbide Artistikoen irakaskuntzetatik 1963ko planeko hirugarren maila edo komunen bigarren maila esperimentala gainditu izana.
- Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko lehen bi mailen multzoan gehienez ere bi ikasgai gainditu gabe dituela frogatzea.
- Goi-Mailako Heziketa-Zikloetara sartzeko titulazio baliokideetakoren bat izatea, ikus hurrengo atalean "Goi Mailako LHri Onarpeneko Kupo eta Lehenetasunak".
- Ondorio akademikoetarako aurreko tituluren batekiko baliokidetzat deklaratuak izan diren beste ikasketa edo prestakuntza-ikastaroren bat gainditu izana.



## Goi-mailako zikloa

Plaza-kopuruaren % 5 ezintasuna duten pertsonentzat erreserbatzen da eta beste % 5 goi-mailako edo errendimendu handiko kirolarientzat.

Gainerakoak, kupo hauen arabera esleitzen dira:

### a)

% 60 Batxilergoko titulua dutenentzat, eta lehenetasuna izango du ikasi nahi duen tituluan ezarritako modalitaterako eta, hala badagokio, tituluan aipatzen den ikasgaia gainditu dutenentzat.

### b)

Plazen % 20 Teknikari-titulua dutenentzat. (Kidetasunen tabla [www.euskadi.eus-en](http://www.euskadi.eus-en)).

### c)

Plazen % 20 honako hauentzat:

1. Dagokion aukeraren sarrera-proba bidez sartzan direnentzat.
2. **1147/2011 Errege Dekretuan\*** ezarritakoaren bidez sartzan direnentzat, ikus behegoan.
3. 25 urtetik gorakoentzat Unibertsitatean sartzeko probaren bidez sartzan direnentzat.
4. Beste Lanbide Heziketako Goi-Mailako Teknikari titulu baten bitartez sartzan direnak.
5. Unibertsitateko titulu baten bitartez sartzan direnak.
6. Beste sarbide batzuk erabiltzen dituztenak (BBB titulatu izana).

### \*

**Titulazioak edo eskakizunak 1147/2011 ED-an ezarritakoak:**

- Batxilergo Esperimentaleko edozein modalitateko bigarren maila gainditu izana.
- Unibertsitate-orientazioko edo unibertsitate aurreko kurtsoa gainditu izana.

## Sarbide-baldintzak betetzen ez badituz, nola sar naiteke Lanbide Heziketako ziklo batean?

# 3.

Esatzen den titulazio akademikoa ez baduzu, **azterketa** bat egin dezakezu. Deialdiaren oinarriak Abenduan argitaratzen dira, horren ostean froga hauetarako inskripzioa egin beharko da horretarako ezarritako ikastetxetariko batean.

Probak euskaraz nahiz gaztelaniaz egin daitezke, eta ikasleek hautatuko dute zein hizkuntzatan egin nahi duten.

Heziketa-zikloetara sartzeko proba gainditzen bada, Estatuaren lurralde osoan izango du balioa.

Data zehatzak urtero argitaratzen dira:

<http://www.euskadi.eus/informazioa/heziketa-zikloetarako-sarbide-probak/web01-a2hlanhz/eu/>

## Noiz **matrikula** naiteke Lanbide Heziketako ziklo batean?

# 4.

Eusko Jaurlaritzak izena emateko datak argitaratzen ditu apirilean edo maiatzean, baina urtero kontsultatzea komeni da, aldaketak egon baitaitezke.

<http://www.euskadi.eus/informacion/lanbide-heziketako-egutegia/web01-a3hlanar/eu/>

**Aurretiko izen-ematea:** ekain hasieran.

**Behin-behineko onartuen zerrenden argitalpena:** uztail hasieran.

**Behin betiko onartuen zerrenden argitalpena:** uztail erdialdean.

**Matrikulazio-epea:** uztail erdialdean.





**Egin daiteke  
Lanbide  
Heziketako  
ziklo bat  
urrutitik?**

**5.**



Euskal Herrian Urrutiko Lanbide Heziketako Institutuaren bidez egin daiteke. Gaur egun BirtLH Ikaskuntza Birtual eta Digitalizatuen LHilk erdi-mailako 4 ziklo eta goi-mailako sei ziklo eskaintzen ditu.



Informazio gehiago aurkituko duzue hurrengo web orrialdean:

[www.birt.eus](http://www.birt.eus)

## **Zein baldintza bete behar ditut urrutiko Lanbide Heziketako ziklo bat egiteko?**

Mota honetako ikaskuntzan sartzeko, ikasleak **18 urte** izan behar ditu, teknikari-tituluatarako (erdi-maila); eta **20 urte** (edo **19 urte, teknikari-titulua badu**) goi-mailako teknikariaren tituluatarako (goi-maila).

Lanbide Heziketa aurrez aurre egiteko bete behar diren baldintza akademiko berberak.

## **Informatika-ezagutzak izan behar ditut urrutiko ziklo bat egiteko?**

Nahikoa da ordenagailu pertsonal bat, ofimatika eta Internet erabiltzeko oinarrizko ezagutza izatearekin (webguneetan nabigatzea, posta elektronikoa eta testu-tratamenduko programak erabiltzea...). Gomendagarria da nork bere ordenagailua eta interneterako sarbidea izatea ikastaroan zehar, horren segimendua bermatze aldera.

## Zein dira Lanbide Heziketan egin ditzakedan zikloak?

# 6.

## Zer ikas dezaket Araban?

Arabari 84 ziklo eskaintzen dira, 21 lanbide-arlotakoak.

Elektrizitatea eta elektronika	Osasuna	Nekazaritza	Fabrikazio mekanikoa	Irudi pertsonala	Instalatzeko eta mantentze lanak	Informatika eta komunikazioak	Merkataritza eta marketina	Eraikuntza eta obra zibila	Ostalaritza eta turismoa
Sistema elektrotekniko eta automatizatuak	Aho eta hortzen higieena	Paisajismoa eta landa ingurunea	Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	Ile apainketako estilismoa eta zuzendaritza	Instalazio termikoen eta fluidodunen mantentzea	Web-aplikazioen garapena	Marketina eta publizitatea	Eraikuntza obrak ikuskatzea eta antolatzea	Sukalde zuzendaritza
Mantentze lan elektronikoa	Ortoprosesi eta laguntza produktuak	Basoa eta natura ingurunea kudeatzea	Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programatzea	Irudi pertsonalaren eta korporatiboaren aholkularitza	Mekatronika industrialak	Sareko Informatika-Sistemen Administrazioa	Nazioarteko Merkataritza	Eraikuntza Proiektuak	Turismo gidaritza, informazioa eta laguntza
Automatizazioa eta robotika industrialak	Dietetika	ekoizpen Agroekologikoa	Mekanizazioa	Estetika integrala eta ongizatea	Lan Arriskuen Prebentzioa	Plataforma anitzeko aplikazioen garapena	Salmentak eta Merkataritza espazioak kudeatzea	Obra eta lanen burutzapena	Sukaldaritza eta Gastronomia
Telekomunikazio Instalazioak	Kliniko eta biomediko laborategia	Lorezaintza eta lorezaintza	Soldadura eta galdaragintza	Estetika eta edergintza	Hozteko eta girotzeko instalazioak	Mikroinformatika-Sistemak eta Sareak	Garraio eta Logistika	Barnealdeko, dekorazioko eta birgaitzeko obrak	Jatetxe Arloko Zerbitzuak
Instalazio Elektriko eta Automatikoak	Osasun larrialdiak	Baso Lanak eta Natur Ingurunearen Zaintza	Mekanizazioa	Ile-Apainketa eta kosmetika	Mantentze-lan elektromekanikoa	Informatika eta komunikazioak	Merkataritza Jarduerak	Eraikuntza	Sukaldaritza eta jatetxe-arloko jarduerak
Elektrizitatea eta elektronika	Erizaintzako Zaintza Osagarriak	Nekazaritzako lorezaintza eta lore konposizioa	Soldadura eta galdaragintza	Ile-Apainketa	Beroa sortzeko instalazioak	Bulegoko informatika			
Instalazio elektroteknikoak eta mekanikoak	Farmazia eta Parafarmazia								

**Goi-mailako zikloak**

**Erdi-mailako zikloak**

**Oinarritzko LH**



Esteka honetan probintziako ziklo guztiak ikus ditzakezu:

[www.fpalava.com/eu](http://www.fpalava.com/eu)

Garraioa eta ibilgailuen mantentze lanak	Administrazioa eta kudeaketa	Gizarte eta kultura zerbitzuak	Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak	Arte grafikoak	Elikagaien industriak	Kimika	Irudia eta soinua	Jarduera fisikoak eta kirola	Energia eta ura	Segurtasuna eta ingurumena
Automozioa	Administrazioa eta Finantzak	Haur-Heziketa	Instalazioa eta altzari-hornikuntza	Argitalpen inprimatu eta multimedia argitalpenen diseinua eta edizioa	Okintza, gozogintza eta konfiteria	Analisisiko eta Kalitate Kontrolako Laborategia	Ikus entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa	Jarduera Fisikoak eta Kirol-Animazioa	Energia Eraginkortasuna eta Eguzki Energia Termikoa	Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola
Karrozeria	Zuzendaritzari Laguntza ematea	Gizarte Integrazioa	Arotzeria eta altzarigintza	Inprimaketa grafikoa	Okintzako eta pastelgintzako jarduerak	Laborategiko Teknikaria				
Ibilgailuen Elektromekanika	Administrazio - Kudeaketa	Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta								
Ibilgailuen mantentze lanak	Administrazio zerbitzuak	Etxeko jarduerak eta eraikin garbiketa								
Karrozeria										

## Non ikus dezaket Euskal Herriko eta beste autonomia-erkidego batzuetako prestakuntza-eskaintza osoa?

Gaur egun, 26 arlotako 150 titulazio eskura daitezke Euskal Herrian:

[www.euskadi.eus/informacion/familias-profesionales/web01-a3hlanar/es/ivac-eei.eus//upload/fondos/documentos/11/libro\\_egtloe\\_c.pdf](http://www.euskadi.eus/informacion/familias-profesionales/web01-a3hlanar/es/ivac-eei.eus//upload/fondos/documentos/11/libro_egtloe_c.pdf)

Estatuko gainerako lekuetan eskaintzen diren titulazioak hemen kontsulta ditzakezu:

[www.todofp.es](http://www.todofp.es)

## Zein dira ibilbideak?

# 7.

## Oinarrizko LH batetik erdi-mailako ziklo batera sar naiteke? Eta, erdi-mailako ziklo batetik goi-mailako ziklo batera?

Sarbidea zuzena da eta ez da azterketarik egin behar.

## Unibertsitatera sar naiteke goi mailako ziklo batetik?

Goi-mailako prestakuntza ziklo bateko titulua dutenak unibertsitatera sar daitezke Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa (USE) **egin eta gainditu gabe**. Unibertsitatera Sartzeko Nota (USN) zikloaren batez besteko nota izango da.

Zure sarrera-nota hobetzeko, edozein irakasgairen azterketara aurkez zaitezke, enborreko irakasgai orokorrak barne. Gradura sartzeko nota (GSN) Batxilergoko ikasleentzat bezala kalkulatu da.

Zikloaren lanbide-arloa lehenasunezko irizpidea izango da horri lotutako ezagutza-adarreko graduatan onartua izateko.

Informazio hori unibertsitate batetik bestera aldatzen da, eta, beraz, unibertsitate bakoitzaren ataria kontsultatu behar da.

## Kredituak baliozkotzen dira?

Lanbide Heziketako zikloen moduluak unibertsitate-ikasketetako kredituekin baliozkotu daitezke, baldin eta ikasketak egingo diren unibertsitateak horretarako aukera ematen badu eta prozedura hori behar bezala arautua badu.

## Lanbide Heziketako ikasle guztiek dute harremana enpresarekin?

# 8.

Lantokiko Prestakuntza nahitaezko modulua da Lanbide Heziketako maila guztietan. Horren bidez, ikasleek 3 hilabete (**260 eta 400 ordu artean**) igaroko dituzte enpresa batean. Une oro, instruktore bat egongo da ikasle bakoitzarekin, eta hark gidatuko du ikaslea bere ikaskuntza-prozesuan.

Lanbide Heziketa Dualak aukera ematen du benetako lan-egoeretan ikasteko, gutxienez urtebeteko lanbide-erperientzia eskuratzeko enpresa batean, lan egindako denborari dagokion ordainsaria jasotzeko eta Gizarte Segurantzari kotizatzeke, hala kontratu-modalitatean nola beka-modalitatean.



## Praktikak egin daitezke atzerrian?

# 9.

Erasmus+ programaren bidez, erdi-mailako eta goi-mailako zikloetako ikasleek Europako enpresa batean egin dezakete Lantokiko Prestakuntza modulu praktikoa, **hiru hilez**.

Baldintza bakarrak dira **irakasgai guztiak gaindituta izatea** eta ikastetxeak egiten duen hautaketa-prozesua gainditzea, ikastetxeak berak kudeatzen baititu bekak.

## ERREFERENTZIAK



### **Lanbide Heziketa Araban.** **Zikloak eta ikastetxeak:**

[www.fpalava.com/eu](http://www.fpalava.com/eu)

### **Lanbide Heziketa** **Euskadin:**

[www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-lh](http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-lh)

[www.ivac-eei.eus/eu](http://www.ivac-eei.eus/eu)

### **Lanbide Heziketa** **Estatuan:**

[www.todofp.es](http://www.todofp.es)

### **Beste atari** **interesgarri batzuk:**

[www.descubrelafp.org](http://www.descubrelafp.org)